



KIROL ERAKUNDEAK SORTU ETA
KUDEATZEKO GIDALIBURUA

IKASTETXEAK ETA GURASOEN ELKARTEAK



IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

Argitalpena: 2018ko azaroa

Gidaliburua sustatu duten erakundeak:

Kirolaren Euskal Eskola (Eusko Jaurlaritza)

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gidaliburuaren egilea:

Juanma Murua - [murua.eu]

Lege aholkularitza: Vicente Javaloyes

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| 1. Sarrera | 3 |
| 2. Eskola kirola | 5 |
| 2.1. Zer da eskola kirola?..... | 5 |
| 2.2. Nor da nor eskola kirolean?..... | 7 |
| 2.3. Eskola lizentziak eta federazio lizentziak | 9 |
| 3. Eskola kiroleko antolamendu ereduak hezkuntza arloan..... | 10 |
| 3.1. Ikastetxea eskola kiroleko erakunde gisa..... | 10 |
| 3.2. Guraso elkarteak eskola kiroleko erakunde gisa | 11 |
| 3.3. Kirol elkarte bat eratu eta erregistratzea..... | 11 |
| 3.4. Kirol klub bat eratu eta erregistratzea | 12 |
| 4. Eskola kiroleko programan izena ematea..... | 13 |
| 4.1. Eskola kiroleko kanpainan izena ematearen abantailak | 13 |
| 4.2. Guraso elkarteak edo ikastetxeak izena ematea | 13 |
| 4.3. Taldeen eta partaideen izen ematea | 15 |

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

| | |
|--|-----------|
| 5. Ikastetxeko kirol proiektua | 16 |
| 5.1. Hasierako azterketa | 16 |
| 5.2. Xedeak eta helburuak..... | 17 |
| 5.3. Antolamendu egitura | 17 |
| 5.4. Kirol arloko langileak kontratatzea | 18 |
| 5.5. Kirol plana..... | 19 |
| 5.6. Beste jarduera batzuk | 20 |
| 5.7. Jardueren urteko programa | 21 |
| 5.8. Plan ekonomikoa | 22 |
| 5.9. Komunikazioa | 23 |
| | |
| 6. Urteko memoria | 26 |

1. Sarrera

Eskolaz kanpoko kirol jarduera haurren prestakuntzaren funtsezko alderditzat onartuta dago. Sozializatorako eta gizarte prebentziorako faktore eraginkor bat da, berekin baitakartza harremana, bizikidetza eta integrazioa. Eskola umeentzako kirolak hezigarria izan behar du funtsean. Hori dela eta, eskola ingurunea da Euskadiko eskola kirolaren ereduaren oinarritzko ardatza.

Bestalde, 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, aitortzen du eskola kirola kirol sistemaren oinarrietako bat dela.

Esan dugunez, kirol jarduera hezkuntza tresna garrantzitsu bat izan daiteke, behar bezala garatzen bada, giza garapena mesedetzen badu eta haurren partaidetza aktibo eta inplikatuan oinarrituta badago. Aitzitik, ezin dugu ahaztu badirela kirol esperientzia negatiboak ere, gaizki ulertutako lehiakortasuna darabiltenak edo guztiz bideratuta daudenak kontsumoko kirolera.

Hortaz, balioetan oinarritutako heziketara eta sozializaziora bideratutako kirol jarduera sustatzea izango da funtsezko gakoa. Horrexegatik, administrazio publikoak dira eskola kirolaren

buru, eta saiatzen dira jarduera horiek arautzen eta eskola adineko kirolarekin lotura duten erakundeen ahaleginak bideratzen.

Esparru horretan, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak eta hiru foru aldundiek beharrezkotzat jo dute tresna praktiko bat sortzea, lagungarria izango zaiena ikastetxeetatik eta guraso elkarteetatik antolatzen diren eskolaz kanpoko kirol jardueren arduradunei. Hori dela eta, eskola ingurunekeo kirol kudeaketari buruzko gidaliburu bat prestatzea erabaki dute lau erakundeek.

Gidaliburu honen xedea da dokumentu bakar batean jasota uztea, modu argi eta eskematikoan, Euskadin eskola ingurunekeo eskolaz kanpoko kirol jarduera kudeatzeko kontuan hartu behar diren alderdi guztiak, barne hartuta erakundearen jardunari dagozkion elementu administratibo eta juridikoak, baita erabilgarriak izan daitezkeen beste baliabide batzuen aipamena ere (diru laguntzak, araudiak, kontaktuen direktorioa, etab.).

Gidaliburuaren asmoa ez da sakontasunez garatzea alderdi teknikoak eta legezkoak; ikastetxeetan eskolaz kanpoko kirol jarduera kudeatzen dutenek izan ditzaketan zalantza zehatzak argitzeko lehen baliabide bat izan nahi du. Norbaitek atal jakin batean sakondu nahi izanez gero, gidaliburuan bertan horretarako

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

aukera ematen duten beste dokumentu eta informazio batzuk aipatuta datoz, eta horietara iristeko estekak ere ageri dira.



2. Eskola kirola

2.1. Zer da eskola kirola?

Hasteko, argitu egin behar dugu zeri egiten diogun erreferentzia eskola kirolari buruz ari garenean.14/1998



14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena.>>

Legeak, Euskadiko Kirolarenak, honako definizio hau ematen digu:

“Lege honen ondorioetarako, ikasleek nahitaezko eskolatze aldian irakats orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera antolatua izango da eskola kirola”.

Eskola kirolaren helburu nagusia kirola egiten duen **haurraren hezkuntza garapena osatzea** izango da, baita kirolari bakoitzaren behar indibidualak asetzea ere. Hortaz, eskola kirolak haurren heziketa integrala

izango du jomugatzat, eta bermatu egin beharko du haur guztiek parte hartu ahal izango dutela, baldintza berdinetan, eta alde batera utzita

sexuaren araberako estereotipoak eta rola; era berean, haurren nortasuna era harmoniatsuan garatzea bilatuko du, baita handiagotan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea eta bizimodu osasuntsua

edukitzea bermatuko duten baldintza fisiko eta kirol ohiturak eskuratzea ere.

Horrez gainera, eskola kiroleko jarduerak hezigarriak izan behar dute, alegia, **eskola umeen heziketa integralaren baitan kokatuta egongo dira eta heziketa sistemaren eta haren etapen helburuekin bat egingo dute, oro har, eta bereziki gorputz hezkuntzaren alorreko helburuekin.**

Eskola kirola **nagusiki kirol anitzekoa** izango da, **eta ez da soilik lehiakortasunera bideratuta egongo**. Horrenbestez, eskola ume orok hainbat kirol modalitate ezagutu eta praktikatu dituela bermatuko da, bakoitzaren gogo, gaitasun fisiko, jarrera eta adinaren arabera.


14/1998 Legean eta 125/2008 Dekretuan zehaztuta dagoenez, eskola kirolak barne hartzen du nahitaezko eskolaratzealdi osoa, hau da, 6 urtetik 16 urtera bitarteko etapa.

Eskola kirolak barne hartzen duen adin tartean hainbat kategoria daude, eta hainbat eremu geografiko:

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

| Kategoria | Adina | Ikasmaila | Jarduera eremua |
|------------------|------------|-------------|-------------------------------------|
| Benjaminurrekoak | 6-7 urte | DLH 1 eta 2 | Tokikoa/ Eskualdekoa |
| Benjaminak | 8-9 urte | DLH 3 eta 4 | Tokikoa/ Eskualdekoa |
| Kimuak | 10-11 urte | DLH 5 eta 6 | Lurraldekoa |
| Haurrak | 12-13 urte | DBH 1 eta 2 | Lurraldekoa /Autonomikoa |
| Kadeteak | 14-15 urte | DBH 3 eta 4 | Lurraldekoa/ Autonomikoa/ Estatukoa |

Era berean, eskola kirolaren baitan hainbat kirol ibilbide daude: kirola egiten hasteko ibilbidea, errendimenduari ekiteko ibilbidea eta talentuak hautemateko ibilbidea.



2.2. Nor da nor eskola kirolean?

Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak arautzen ditu eskola kirolaren oinarri eta printzipioak Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta kirol arloko diziplinazko erregimena eta eskumenak ere zehazten ditu.

Hiru lurralde historikoetan homogeneizatu nahi du eredu bera, horietako bakoitzaren ezaugarri soziodemografiko eta geografikoetara egokituta, baina zehaztutako printzipio orokorrak, ezaugarriak eta helburuak errespetatuz, betiere.



Euskadiko
Eskolarteko Kirol
Jokoei buruzko
sarrera.>>

Horrez gainera, haur kategoriako Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoa arautzen ditu.

Foru aldundiak

Foru aldundiak eskola kiroleko programak arau bidez garatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen dira, udalekin batera, bakoitza dagokion lurralde historikoan.

Foru aldundi bakoitzak eskola kiroleko programa propioa diseinatu eta gauzatzen du.

Hortaz, erakunde orok, izan ikastetxe, guraso elkarte, kirol klub edo kirol elkarte, bere lurraldeko foru aldundian izapidetu beharko du bere izen ematea.

Kirol eskolako programak lurralde historikoetako foru organoek argitaratzen dituzte bakoitzari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean, eta joko nahiz lehiaketarako arauak dagozkien web-orrien bidez zabaltzen dituzte, gutxienez.



Foru aldundi bakoitzeko eskola kiroleko programei eta izena emateko prozesuei buruzko informazioa:
• Araba:>>
• Bizkaia:>>
• Gipuzkoa:>>

Udalak

Udalek lurralde historikoetako foru organoek onartutako eskola kiroleko programak gauzatzen dituzte, horiekin koordinatuta; besteak beste, instalazioak erabiltzeko aukera ematen dute, jarduerak garatu ahal izateko.

Kasu askotan, udalerriko ikastetxeen eta kirol klub nahiz elkarten arteko elkarlana sustatzen dute, jarduera horien alderdi hezigarria behar bezala garatzeko.

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

Ikastetxeak, guraso elkarteak, kirol klubak eta kirol elkarteak

Ikastetxeak dira haurrek kirola egitea xedetzat duen ibilbidean txertatuta dauden jardueretan parte hartzeko esparru nagusia, eta haiek arduratzen dira prestakuntzarekin, antolakuntzarekin eta administrazioarekin lotutako alderdiez.

Ikastetxe batzuek guraso elkarteen esku uzten dute eskola kiroleko jardueren antolakuntza, eta elkarte horiek jarduten dute foru aldundietako eskola kiroleko programetan erregistratutako erakunde gisa.

Beste batzuetan, kirol klubek eta elkarteek eskaintzen dute eskolaz kanpoko kirol jarduerak, ikastetxeetatik jarduerak jakin batzuk eskaintzeko zailtasunak dituztelako edo errendimenduari ekiteko ibilbidean txertatutako jarduerak direlako.

Federazioak

Federazioak eskola kiroleko jardueren babes teknikoaz arduratzen dira, eta eskolakiroleko programak antolatu eta gauzatzen parte hartu eta laguntzen dute, aldezturik dagokien foru aldundiarekin adostuta.

Jarduerentzako babes horrek barne hartzen ditu honako hauek:

- Edozein jardueraren alderdi tekniko guztiak zuzendu eta koordinatzea, eta horien jarraipena egitea.
- Egutegiak eta jardunaldiak prestatzea; arbitrajeak izendatu eta kontrolatzea; aktak egitea; sailkapenak egin eta zabaltzea, eta, hala badagokio, diziplinazko erregimena aplikatzea lehiaketa batzordearen bidez.
- Irakaskuntza programak eta balioak antzemateko programak diseinatu eta prestatzea, baita gauzatzea ere.

2.3. Eskola lizentziak eta federazio lizentziak

Eskola kiroleko programetan aurreikusitako lehiaketetan parte hartzeko, ezinbesteko baldintza da eskola kiroleko lizentzia eskuratzea; lizentzia hori kirolariaren bizitokiari dagokion foru aldundiko organo eskumendunak jaulkitzen du.

Foru organo bakoitzaren eskola kiroleko programaren arabera, eskola umeei federazio lizentziak ematea baimendu dezakete zenbait kasutan.

Denboraldi berean ezin dira bi lizentziak aldi berean eduki.

Foru organo eskumendunek berariaz eman behar dute federazio lizentzia izapidetzeko baimena. Behin hori emanda, kirolariei baja emango zaie dagokien eskola kiroleko kanpaina edo denboraldian, eta egiten duten modalitatearen federazioko arauen mende egongo dira.

Aldi berean, Euskadiko kirol federazioek federazio lizentzia gisa homologatu ditzakete foru aldundietako organo eskumendunek jaulkitako eskola lizentziak. Baina hona hemen ohar garrantzitsu bat: federazioek

homologatutako lizentzia horiek ez diote aukerarik ematen titularrarikirol federatuko lehiaketetan parte hartzeko, nahiz eta federazio lizentzien baliokidetzat hartzen diren gainerako helburu guztietarako.



3. Eskola kiroleko antolamendu ereduak hezkuntza arloan

Alde batera utzita hezkuntza egiturekin zerikusirik ez duten kirol klub eta elkarten errealitatea, hainbat eredu daude hezkuntza arloan eskola kirola antolatzeko.

Hasteko, kontuan izan behar dugu foru aldundi bakoitzak bere programa duela eta bere modura egituratzen duela haren funtzionamendua. Hortaz, lurralde historikoaren arabera, erakunde mota berak oso eginkizun desberdina du eskola kiroleko engranajearen barruan.

Bestalde, udal bakoitzak eta ikastetxe bakoitzak bere jarduera nola antolatu erabaki dezake; beraz, lurralde historiko berean ere desberdintasunak izan daitezke udalerrien artean.

3.1. Ikastetxea eskola kiroleko erakunde gisa

Ikastetxeek zuzenean eman dezakete izena eskola kiroleko programetako erakunde parte hartzaile gisa.

Aukera hau hautatu aurretik, kontuan hartu behar da legeari eta funtzionamenduari begira zer nolako desberdintasunak dauden ikastetxe pribatu/hitzarmendunen eta ikastetxe publikoen artean.

Eskola kiroleko proiektu bat garatzeko, entrenatzaileak kontratatu behar ditugu, eta materiala erosi, eta jardueragatiko diru laguntza publikoak jasotzeko aukera ere izango dugu. Ikastetxe pribatu/hitzarmendunetan horrek ez dakar arazo handirik, autonomia ekonomikoa baitute, baina ikastetxe publikoetan oso zaila izan daiteke, edo ezinezkoa.

Hori dela eta, Araban eta Bizkaian ikastetxe pribatu edo hitzarmendunak direnean bakarrik erabiltzen da aukera hau.

Gipuzkoan, ordea, kirolariak ikastetxean ematen dute izena, hau da, ikastetxea da, izan publiko edo pribatu, eskola kiroleko

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

erakunde gisa erregistratuta dagoen erakundea.

Entrenatzaileak kontratatzeke arazoa konpontzeko, erakunde bakoitzak bere modura jarduten du. Bide ohikoena guraso elkartearen bidez edo ikastetxearen udalerriko udalaren bidez kontratatzea da.

Gipuzkoan jarraituz, Foru Aldundiaren diru laguntzak udalei ematen zaizkie, eta ondoren udalak erabakitzen du, ikastetxeekin adostuta, zer sistema erabili diru laguntza horiek eskola kiroleko programaren gastuak ordaintzera bideratzeko.

Arabian eta Bizkaian, guraso elkarteek izena eman dezaketenez eskola kiroleko programako erakunde parte hartzaile gisa, haiek zuzenean jaso ditzakete diru laguntzak.

3.2. Guraso elkarteak eskola kiroleko erakunde gisa

Aukera hau oso ohikoa da Arabian eta Bizkaian, elkarte gisa erregistratutako guraso elkarteek nortasun juridiko propioa baitute. Modu horretan, guraso elkarteek

eskolakiroleko jarduerak garatzeko beharrezkoak diren pertsonak kontratatu ditzakete, eta diru laguntza posibleak kobratu.

Gipuzkoan, ordea, nahiz eta guraso elkarteek eginkizun oso garrantzitsua izan dezaketen ikastetxe batzuetan eskola kirolaren antolamendua euren esku utzi delako, ikastetxeak izapidetu behar du kirolarien izen ematea, eta hura izango da egindako jardueren erantzule zuzena.

3.3. Kirol elkarte bat eratu eta erregistratzea

Kirol elkarteak erakunde publiko edo pribatuen baitan eratutako atalak dira, eta helburutzat dute kirol modalitate batedo batzuk egin eta sustatzea, kirol txapelketetan parte hartzen duten gorabehera. Hortaz, kirol elkarteek ez dute berezko nortasun juridikorik; erakunde baten atal gisa erregistratzen dira, kasu honetan ikastetxe bateko edo guraso elkarteko bateko atal gisa.

3.4. Kirol klub bat eratu eta erregistratzea


Azkenik, zenbait ikastetxe pribatu/hitzarmendunek kirol klubak eratzen dituzte. Aukera horri esker, euren



EAEko Kirol Erakundeen Erregistroa >>

erakundearen izenean parte har dezakete lehiaketa federatuetan, eta kirolean jarraitzeko aukera eskain diezaiekete eskola kiroleko etapa amaitu duten ikastetxeko kirolariei.

Informazio gehiago nahi baduzu kirol klub bat eratu, inskribatu eta abian jartzeko egin beharrekoari buruz, "KIROL ERAKUNDEAK SORTU ETA KUDEATZEKO GIDALIBURUA: KLUBAK" dokumentura jo dezakezu.



4. Eskola kiroleko programan izena ematea

4.1. Eskola kiroleko kanpainen izena ematearen abantailak

Foru aldundietako eskola kiroleko programetan izena emana duten haurrek hainbat abantaila dituzte, eta horiek ez dakarkiete gastu erantsirik ez guraso elkarteei, ez ikastetxeei.

1. **Aseguruak.** Foru aldundiek aseguru batzuk dituzte eskola kiroleko programetan izena emana duten partaide guztientzat. Aseguru horiek ez dakarkiete inolako gasturik ez ikastetxeei, ez guraso elkarteei.
2. **Jarduerak.** Eskola kiroleko programan izena emanez gero, era askotako jardueretan parte har dezakete (hastapenekoak, jolasezkoak eta lehiaketakoak), eta ez ikastetxeek ez guraso elkarteek ez dute horiek antolatzeaz arduratu behar.

3. **Diru laguntzak.** Foru aldundiek diru laguntzak eta laguntza lerroak ezartzen dituzte izena emana duten erakundeentzat; lurralde bakoitzean modu jakin batean bideratzen dira laguntza horiek.

4.2. Guraso elkarteak edo ikastetxeak izena ematea

Eskola kiroleko programan parte hartu ahal izateko, erakundeak izena eman behar du programa horretan.

Foru aldundi bakoitzak bere eskola kiroleko programan izena emateko sistema propioa du. Atal honetan, aldundi bakoitzean egin beharreko oinarrizko urratsak azalduko ditugu, labur-labur:

Arabako Foru Aldundia

Izapide guztiak Internetez egiten dira, horretarako sortutako aplikazioaren bidez:

<https://www.araba.eus/DeporteEscolar/Account/Login>

Guraso elkartea edo ikastetxea **jada erregistratuta egon** bada

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

eskola kiroleko aurreko beste kanpainan batean, erakundearen IFK zenbakia eta pasahitza idatziz sartuko gara aplikazioan.

Aurreko ikasturtetik aldatu diren datuak zuzentzeko eskatuko digun atal batean sartuko gara.

Aldaketak "Gorde" eta "Inprimatu" ostean, izenpetu eta zigilatu egingo ditugu, eta sortutako dokumentua "Erantsi" egingo dugu aldaketak egin ditugun orrian bertan.

Erakundea aktibatu dela jakinarazteko mezuaren zain geratuko gara.

Guraso elkartea edo ikastetxea aurretik ez bada erregistratuta egon eskola kiroleko inongo kanpainatan, "Erakunde berria" aukera sakatuko dugu hasierako orrian, eta aurretik adierazitako urratsak egingo ditugu, baina datuak aldatu beharrenean bete egin beharko ditugu.

Bizkaiko Foru Aldundia

Izapideei buruzko informazio guztia jasota ageri da web-orrian:

<http://apps.bizkaia.net/BKIN/servlet/webAgentBKIN>

Erakundeak lehen aldiz parte hartuko badu eskola kiroleko programan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko du eskaera (Rekalde zumarkalea, 30-1, Bilbo).

Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Erakundearen izen emate buletina
- Web-pasahitzen eskaera
- Erakundearen IFKren fotokopia



Bizkaiko erakundeentzako izen emate buletina >>>

Erakundeak aurretik ere parte hartu badu eskola kiroleko programan, buletina bakarrik aurkeztuko du, eta web-pasahitzak eskatuko ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, eskola kiroleko programan parte hartzen duten ikastetxe, klub eta federazio guztiek jada alta emana dute sisteman.

4.3. Taldeen eta partaideen izen ematea

Behin erakundeak izena eman duela, taldeen eta partaideen izen emateak izapidetu ditzakegu.

Kasu honetan, prozedura oso antzekoa darabilte hiru foru aldundiek. Web-orrien bidez, izena emateko aplikazioan sartu beharko dugu:

Araba:

<https://www.araba.eus/DeporteEscolar/Account/Login>

Bizkaia:

[http://apps.bizkaia.net/BKIN/ser
vlet/webAgentBKIN](http://apps.bizkaia.net/BKIN/servlet/webAgentBKIN)

Gipuzkoa:

[http://www.gipuzkoakirolak.eus/
es/tramites-deporte-escolar](http://www.gipuzkoakirolak.eus/es/tramites-deporte-escolar)

Hiru orri horietan zehaztuta ditugu izena emateko prozesuan egin beharreko urratsak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, eskola kiroleko programan estrainekoz parte hartuko duten eskola umeen gurasoek edo legezko tutoreek altan eman beharko dituzte kirolariak web-orriaren bidez, helbide honetan:

[http://apps.bizkaia.net/BKIN/ml
BKIN_AltaDeportistaEnlaceExtern
o.jsp](http://apps.bizkaia.net/BKIN/mlBKIN_AltaDeportistaEnlaceExterno.jsp)

Behin beteta beharrezko datu guztiak, programak zuzenean bideratuko ditu GURASOENTZAKO PRESTAKUNTZA atalera, non azalduta dauden, single-simple, Bizkaiko eskola kirolaren oinarrizko alderdiak. Eskola ume bakoitzaren aitak, amak edo legezko tutoreak diploma bat jasoko du, prestakuntza horren egiaztagiri gisa.

Erakundeak aurkeztu egin beharko du diploma hori, kirolariari jardueretan izena eman ahal izateko.

Arabaren eta Gipuzkoan, erakundeek berek izapidetu ahal izango dute partaide berrien izen ematea, familia liburuaren edo NANaren fotokopia bat erantsita.

5. Ikastetxeko kirol proiektua

Eskola umeen artean kirol jarduerak sustatu nahi dituen erakunde orok kirol proiektu bat garatu behar luke, non jasota egongo diren bere jardunaren, antolamenduaren eta funtzionamenduaren oinarriko ezaugarriak.

Klubak, federazioak eta soilik kirolariak diren gainerako erakundeek kasu ez bezala, ikastetxeen eta guraso elkarteak



Eskolako Kirol Proiektua (Bizkaiko Foru Aldundia). >>

kasu beste jarduerak mota asko garatzen dituzte kirol jardueraz gain, eta, hortaz, horien antolamendua eta funtzionamendua ez dago kirol jarduerara bakarrik bideratua.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar oso garrantzitsua dela ikastetxeek eta guraso elkarteek ikastetxeko kirol proiektu bat prestatzea; proiektu horrek ikastetxeko hezkuntza proiektuaren ildo beretik joan behar du, eta horrekiko koherentzia eduki behar du.

Atal honetan, zenbait jarraibide eta eduki bildu ditugu, ikastetxeei eta guraso elkartei beren kirol proiektua prestatzen laguntzeko.

5.1. Hasierako azterketa

Abian jarriko ditugun jardueren plangintza egiten hasi aurretik, aztertu egin behar genuke zein den hasierako egoera eta zein testuingurutan garatuko dugun gure kirol jarduerak. Hasierako egoera hori ulertuta, gure aukeretara egokitutako helburu errealistak ezarriko ditugu.

Hauek dira aztertu eta dokumentu batean idatziz jaso behar ditugun zenbait alderdi:

- **Araudia:** zer arau dira aplikagarriak eskola kirolaren esparruan?
- **Sistema:** nola dago egituratuta eskola kirola gure jardute eremuan?, zein eginkizun dugu sistema horren barruan?, zer harreman dugu gainerako eragileekin (aldundia, udala, klubak, federazioak...)?
- **Kirolariak:** zenbat ikasle ditu ikastetxeak?, zenbatek parte hartzen dute edo parte har dezakete eskola kiroleko jardueretan?
- **Ordutegiak:** zer ordutegi dira komenigarrienak jarduerak garatzeko?, zenbat denbora beharko da jarduerak gauzatzeko (joan-etorriak barne, halakorik izanez gero)?

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

- **Instalazioak:** zer instalazio dauzkagu?, nahikoak dira?, erabil ditzakegu beste erakunde batzuen instalazioak (publikoak edo pribatuak)?
- **Materialak:** zer material daukagu?, egoera onean dago?, egokia da?
- **Entrenatzaileak:** zer entrenatzaile dauzkagu?, zer ordutegi dute?, kontrataziorako zer legezko baldintza bete behar ditugu?
- **Azterketa ekonomikoa:** zer diru sarrera daukagu jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko?, izan daiteke likidezia gabeziarik uneren batean?

5.2. Xedeak eta helburuak

Ikastetxeek ongi zehaztuta edukitzen dituzte beren eginkizuna, ikuspegia eta balioak ikastetxeko hezkuntza proiektuan. Kirol proiektuak, izan ikastetxearena edo guraso elkartearena, bat etorri behar du nortasun printzipio horiekin, hau da, kirolak hezkuntza proiektuaren zati izan behar du.

Horrez gainera, eskola kiroleko programetan parte hartzen duen ikastetxe bateko kirol proiektuaren helburuek aintzat hartu beharko dituzte, halaber, programa horren helburu orokorrak, honako hauek, besteak beste:

- Pertsonen prestakuntza integrala lortzea, hainbat kirol jardueratan parte hartuz, nortasunaren garapen harmoniatsuan laguntzeko.
- Ohitura osasungarriak sortzea.
- Kirolean baldintza berdinetan eta sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita parte hartu ahal izango dutela bermatzea.
- Eskola umeei ahalik eta kirol prestakuntza onena ematea, haien gogoa, gaitasun fisikoa, jarrera eta adina aintzat hartuta.

5.3. Antolamendu egitura

Erabakiak hartzeko eta kirol jardueraren beharrei erantzun ahal izateko zer egitura erabiliko dugun zehaztu behar dugu.

Antolamendu egituraren baitan, honako hauek zehaztuko ditugu: eskola kirolaz arduratuko diren organoak edo/eta batzordeak, egitura teknikoa, erabakiak hartzeko sistema, organo

bakoitzaren erantzukizunak eta funtzioak, batzordearen eta arlo tekniko nahiz kirol arloaren arteko erlazio moduak, baita egindakoak aztertzeke eta horiei jarraipena egiteko mekanismoak ere.

5.4. Kirol arloko langileak kontratatzea

Kirol arloko langileek kontratu profesionala eduki behar dute, eta zerga betebeharrak guztiak bete behar dituzte, baita gizarte segurantzako betebeharrak ere.

Ikastetxeak edo guraso elkarteak bere gain hartu beharko ditu lan arloko betebeharrak eta erantzukizun batzuk:

- Kontratuak idatziz formalizatzea.
- Lan baldintzei buruzko gutxieneko arauak aplikatzea, lanbide arteko gutxieneko soldatari buruzkoa, adibidez.
- Dagokion hitzarmen kolektiboa aplikatzea, horrelakorik izanez gero.
- Bere konturako langileei Gizarte Segurantzaren alta ematea eta kotizazioak ordaintzea.
- Laneko arriskuen arloko legedia aplikatzea.

- Lan etekinen atxikipena egitea, lurralde historiko bakoitzean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) arautzen duten taulen arabera.



Lan etekinen atxikipenen taulak 2018:

- Araba: >>
- Bizkaia: >>
- Gipuzkoa: >>

Era berean, kontuan hartu behar da eskola kirolaren arloko **zuzendaritza, programazio, plangintza, koordinazio, kontrol eta gainbegiratze** funtzioak edo antzeko beste batzuk betetzeko ezinbestekoa dela **Jarduera Fisikoen eta Kirolaren Zientzietako lizentziadun** titulu ofiziala edukitzea, **edo dagokion graduoko titulua.**

Ikastetxeetan eskola orduetatik kanpo programatzen diren eskola kiroleko jardueren zuzendaritza lanetarako baliozkoa izango da, halaber, **Hezkuntza Fisikoan espezializatutako maisu-maistra titulua, edo horren baliokidea.**

Horrez gainera, bestelako kirol titulurik gabe monitore lanetan diharduten pertsonen oinarrizko ezagutzak eskaintzeko asmoz, foru aldundiek **Eskola Kiroleko Monitore Ikastaroa** ematen dute.



Eskola Kiroleko Monitore Ikastaroari buruzko informazioa:

- Araba: >>
- Bizkaia: >>
- Gipuzkoa: >>

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

Bestalde, lan horiek gauzaten dituzten teknikariek adingabeen aurkako delituen ziurtagiri negatiboa eduki behar dute.

Adingabeen aurkako delituen ziurtagiri negatiboa

26/2015 Legeak, uztailaren 28koak, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duenak, debekatu egin zien adingabeekin lan egitea sexu delituengatik



26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. >>

aurrekariak zituzten pertsonen aurkako delituengatik 13. artikuluko 5. puntuan, honako hau dio: "Nahitaezko eskakizuna izango da,

adingabeekin ohiko harremanak izatea eskatzen duten lanbide eta

jardueretara jo ahal izateko eta horietan jarduteko, epai irmo baten bidez espetze zigorrarekin

kondenatua izan ez izana sexu askatasun eta

ukigabetasunaren aurkako delituengatik –mota horretako delituen artean daude sexu erasoa eta abusua, sexu jazarpena, exhibizionismoa eta sexu probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa, eta adingabeak galbideratzea–, ez eta pertsonen salerosketa delituengatik ere. Horretarako, aipatutako lanbidea edo jarduna bete nahi duten pertsonen Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri

bat aurkeztu beharko dute, delitu horiengatik zigorrak jaso ez dutela egiaztatzen duena".

Hortaz, kirolean ere, adingabeekin aritzen direnek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute dena delako jarduera antolatzen duen erakundean; zehazki, begiraleek, entrenatzaileek, eta, zer egiten duten gorabeheran, kirol zuzendariek; berdin dio profesionalki aritzen diren edo boluntario, edo eskola kirolean, kirol federatuan edo denentzako kirolean aritzen diren.



Kirol eskolaren informazio oharra >>



Eskaera prozedurari buruzko informazioa >>

5.5. Kirol plana

Kirol planean jasota dago hiruzpalau urteko epean egingo diren jardueren plangintza.

Epe luzerako plangintza eginda, zer norabidetan aurrera egin nahi dugun jakiteko erreferentzia bat zehaztuko dugu.

Planean, jarduera motak eta horiei dagozkien modalitateak, kategoriak nahiz ibilbideak ezarriko ditugu.

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

Gai horiek guztiak xehetasunez jasotzeko, zenbait fitxatan honako datu hauek zehaztea proposatzen dugu:

- Kirol jardueraren **izena**(modalitatea)
- **Kategoria:** benjaminurrekoak, benjaminak, kimuak, haurrak edo kadeteak.
- **Ibilbidea:** parte hartzea edo errendimendua.
- Asteko **saio** kopurua.
- **Segida:** etengabea ikasturte osoan zehar, edo noizbehinkakoa, data jakin batzuetan.
- Eskola umeentzat ezarritako **helburuak**.
- Landuko diren **edukiak**.
- **Metodologia:** nola landuko diren edukiak.
- **Ebaluazioa:** nola ebaluatuko den helburuak erdietsi diren ala ez.

Kirol plana prestatzean, kontuan hartu behar ditugu eskola kirolaren oinarrizko zenbait printzipio, hala nola: hurrek beren ingurune naturalean egitea kirola, eta kirol ugari probatzea, kirol modalitate eta ibilbide desberdinak ezagutzeko aukera

izan dezaten eta arrazoizko oreka izan dadin horien artean.

5.6. Beste jarduera batzuk

Kirol jardueraz gain, beste era batekoak ere antola ditzakegu, horien osagarri. Horren adibide izan daiteke modalitate jakin bati buruzko jardunaldi batzuetara joatea, edo udalerriko klubetara bisitatzea, haren jarduera eta funtzionamendua ezagutzeko.

Jarduera osagarri horien plangintza egin behar dugu, koherentzia izan dadin horien guztien artean eta ikastetxeko kirol proiektuan ezarritako xedeei begira.

Ohikoak diren beste jarduera batzuk, eta planifikatu beharrekoak, prestakuntzako jarduerak dira, bai teknikarientzakoak, bai gurasoentzakoak.

Teknikari edo entrenatzaileen prestakuntza faktore garrantzitsua da gure erakundetik eskaintzen dugun kirol jardueraren kalitatea bermatzeko. Plangintzan zenbait prestakuntza saio sartzen baditugu, horien egutegi argia

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

osatu ahal izango dugu, eta eragin ditzaketen kostuak aurreikusi.

Ikastetxe inguruneko gurasoek eskola kirolari eta beste gai garrantzitsu batzuei (berdintasuna, inklusioa, etab.) buruzko prestakuntza jasotzea landu beharreko lan ildo bat da, kirol proiektuaren helburuak osatuko badira.

Ikastetxe batzuek eskolaz kanpoko kirol jarduerak eskaintzen dituzte eskola kiroleko programatik kanpo ere. Funky eta breakdance dantzak, zumba, skatea edo beste edozein jarduera eskaintzen dituzte eskolaz kanpoko ekintzen eskaintzaren barruan. Horrelakoetan, ikastetxeak bere instalazioetako espazioak utzi edo alokatu besterik ez du egiten, enpresa batek edo profesional batek eskolak eman ditzan. Batzuetan, guraso elkarteak arduratzen da ikastetxearen eta jarduerak ematen dituen enpresa edo profesionalaren arteko bitartekaritza lanez. Edonola ere, ikastetxea edo guraso elkarteak den gorabehera, ziurtatu egin behar lukete enpresa edo profesional indibidual horrek ogasunarekiko eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.



5.7. Jardueren urteko programa

Jardueren urteko programa kirol planaren urteko zehaztapena da. Bertan, ikasturte batean garatu beharreko ekintzak daude jasota, eta antolamenduarekin lotutako funtsezko alderdiak zehazten dira.

Kirol planean prestatutako jarduera fitxak abiapuntutzat hartuta, beste alderdi zehatz batzuk erantsiko genizkieke, jarduerak gauzatze aldera:

- **Jardueraren arduraduna.**

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

- **Zer tokitan** egingo den jarduera.
- **Ordutegiak.**
- Beharrezko **materialak.**
- Jardueraren **prezioa.**

Behin eginda izen emateak, honako hauek erantsiko dizkiogu fitxari:

- Kirolari kopurua (sexu eta kategoriaren arabera bereizita)
- Talde kopurua (sexu eta kategoriaren arabera bereizita)

5.8. Plan ekonomikoa

Nahiz eta ikastetxeek eta guraso elkarteek aurrekontu bakarra duten garatzen dituzten jarduera guztietarako, kirolekoak nahiz beste edozein, komeni da kirol proiektuak aurrekontu xehatu bat izatea.

Kirol proiektuko plan ekonomikoki esker, argi eta garbi ezarri ahal izango ditugu kirol jarduerak berekin dakartzan kostuak, baita kirol jarduerarekin zuzenean lotuta lortuko ditugun diru sarrerak ere.

Garrantzitsua da kirol jardueraren plangintza ekonomiko-finantzario zuzena egitea, aurrez ezarritako helburuak beteko badira. Plangintza horren bidez, denbora tarte jakin batean izango ditugun gastuak aurreikusi ahal izango ditugu, baita gastu horiei aurre egiteko diru sarrera posibleak aztertu eta diruzaintzan izan ditzakegun premiak aurreikusi ere.

Plangintza ekonomiko-finantzarioa hainbat denbora tartetarako egin dezakegu, urtebeterako edo hainbat urtetarako, baina, jardueraren izaera kontuan hartuta, garrantzitsua da ikasturte/denboraldi bakoitzerako plangintza espezifiko bat edukitzea. Urteko aurrekontu deritzo horri.

Aurrekontua egiterakoan, hasteko, zehatz-mehatz identifika dezakegu zein diren erakundeko jarduerak gauzatzeko beharrezko gastuak. Erakundearen berezko jardueraren arabera, era askotako gastuak izan daitezke, langileenak, materiala erosteagatikoak eta funtzionamenduari lotuak.

Gastuak zehaztu ostean, diru sarrerak kalkulatu saia gaitezke. Sarrera horietako batzuk eskola kirolari emandako diru laguntza publikoak dira; erakunde publikoek ematen dituzte horrelakoak. Diru

sarrereren beste zati bat gurasoek eskola kirolaren truke ordaintzen dituzten kuotetatik lor daiteke. Hortaz, plan ekonomikoak kuota motak eta zenbatekoak zehaztu beharko ditu.

5.9. Komunikazioa

Jardueren komunikazioa zeregin garrantzitsua da ikastetxeko kirol proiektuaren barruan.

Eskola ingurunearen kasuan, barne komunikazioa izaten da, nagusiki; hau da, haurrak eta gurasoak izaten dira hartzaileak.

Oso ondo dakigu gurasoek zailtasun handiak izaten dituztela lana seme-alaben eskolaz kanpoko ekintzen ordutegiarekin bateratzeko. Alderdi hori errazteko, mesedegarria izango da komunikazio ona edukitzea, eta garaiz ematea jardueren eta ordutegiaren berri, ezohiko deialdien berri edo/eta aldaketa ororen berri.

Internet, posta elektronikoa, Whatsapp taldeak, Twitter, Tuenti, Facebook eta antzeko beste

tresna batzuk erabiltzeak asko errazten du komunikazioa.

Zenbaitetan, kanpo komunikazioa ere egin dezakegu, hau da, gure jardueren berri eman diezaiekegu eskola ingurunetik kanpo dauden eragileei. Bada adibide interesgarri bat edo beste, non ikastetxeek bere jardueren jakinarazpenak igortzen dizkieten tokiko hedabideei edo beren jarduna sustatzen duten, haur gehiago erakartzeko eskola kiroleko programan parte hartzera.

Edonola ere, komunikazioak zer nolako garrantzia duen aintzat hartuta, interesgarria da ikastetxeak edo guraso elkarteak ibilbide orri bat prestatzea, komunikazioaren arloan lortu nahi diren helburuak ezartzeko, egin beharreko zereginak antolatzeke eta ondorengo kudeaketaren oinarriak zehazteko.

Komunikazioari lotuta kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsu bat zera da, **irudi zein datuen erabilera eta teknologia digitalen erabilera arduratsua.**

Ikastetxeek eta guraso elkarteek informazio pertsonal ugari dute, bai kirolariena, bai haien inguruko beste pertsona batzuen.

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

Erakundeak bermatu egin behar du bete egiten duela Datuak Babesteko Araudi Orokorrean (DBAO) datu pertsonalak biltzeari eta erabiltzeari buruz ezarrita dagoena.

Europako Batzordearen esanetan, "datu pertsonalak dira norbanako batekin zerikusia duen



Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27a, pertsona fisikoak babesteko, datu pertsonalen erabilerari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokionez >>

informazio oro, izan haren bizitza pribatuari, profesionalari edo publikoari buruzkoa. Edozer gauza izan daiteke datu pertsonal bat: izen bat, helbide bat, argazki bat, posta elektronikoko helbide bat, bankuko

xehetasunak, sare sozialetako web-orrietako argitalpenak, informazio medikoa edo ordenagailu baten IP helbidea".

Erakundearen betebeharra da:



Informazio eta onarpen klausula datu pertsonalak erabiltzeko, lagatzeko eta tratatzeko >>

Baimen klausula kirolari adingabeen irudiak lortzeko eta Interneten erabiltzeko >>

Kirol erakundeentzako esparru etikoaren eredia >>

Teknikarien eta kirolari adingabeen arteko itun digitalaren eredia >>

- Interesdunaren baimena lortzea bere datu pertsonalak erabili edo lagatzeko, eta 14 urtetik beherako adingabeen kasuan, horien guraso edo legezko ordezkariarena.

- Interesdunari erabil ditzakeen eskubideen berri ematea, baita datuen ardura duen erakundearen izaeraren eta helbidearen berri

eta datuen helburuaren berri ere. Adingabeei eman beharreko informazioak haiek erraz ulertzeko moduan adierazita egon beharko du.

- Bermatzea datu pertsonal horiek ez direla erabiliko datuak biltzeko klausulan azalduta dauden helburuak ez diren beste batzuetarako.
- Ez argitaratzea argazki edo bideorik bertan identifika daitezkeen pertsonen baimenik gabe.

DBAOren helburuetarako, irudiak datu pertsonalak dira; hortaz, erakundeak baimena eskatu behar die kirolariei, bai adinez nagusiei, bai adingabeei, irudiak web-orrian eta sare sozialetako profiletan argitaratzeko.

Irudiekin eta informazio pertsonalarekin zerikusia duten alderdiez gain, kontu handia izan behar dugu zer modutan

erabiltzen ditugun teknologia digitalak kirolari adingabeekin komunikatzeko, batik bat kidego teknikoak.

Legeak ezarritako mugetatik harago, erakundeak eta kidego teknikoak arduraz erabili behar dituzte teknologia digitalak.



"Teknikarien dekalogo: teknologia digitalen erabilera arduratsua kirol erakundeetan adingabeekin" >>

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

Kontuan hartu beharreko beste gai garrantzitsu bat egiletza eskubidea duten irudien erabilera da, Jabetza Intelektualari buruzko 27/1995 Legeak arautzen duena.

Beste batek egin dituen irudiak erabiltzerakoan, ziurtatu egin behar dugu eskubiderik gabekoak direla, edo ordaindu egin behar ditugu. Internetetik har ditzakegun irudiei ere aplikatzen zaie hori.



6. Urteko memoria

Urteko memoria oso tresna erabilgarria da garatutako jarduera ebaluatzeke eta helburuak bete ote diren aztertzeko. Ildo horretan, memoria funtsezko elementua da, ikastetxeko kirol proiektua etengabe hobetu ahal izateko.

Denboraldi bakoitza amaitzean, memoria bat egin behar dugu, eta bertan jaso behar dugu hurrengo urteetan gure jarduna hobetu ahal izateko informazio garrantzitsuena. Dena den, informazioa ikasturte/denboraldi osoan zehar bildu behar genuke, amaieran antolatuta eduki, eta memoria errazago egin ahal izateko.

Gainera, memoriak ez luke izan behar datuak bakarrik biltzen dituen dokumentu bat. Jasotako informazioa hausnartzeko eta balioesteko prozesua ere egin behar dugu, planetan aurretik ezarritako helburuak aintzat hartuta.

Memoriak laburra eta irakurterraza izan behar du, nahiz eta barne hartuko dituen jardueraren alderdi garrantzitsuenak, izandako gorabeherak eta hurrengo ikasturteetan hobekuntzak egitea ahalbidetuko duten alderdi guztiak.

Memoriak barne hartuko ditu:

- **Adierazle kuantitatiboak:** Adierazle kuantitatiboak erakundearen eta programaren irudi orokorra eskaintzen diguten zenbakizko datu zehatzak dira. Datu horiek ikastetxearen edo guraso elkartearen baitan kirolarekin zerikusia duten jarduera arlo guztiei buruzkoak izango dira.

Kirol arloa:

- Kirolari kopurua (kategoriaren eta sexuaren arabera bereiziak).
- Talde kopurua.
- Ikasturtean zehar izandako bajak.
- Dagokion foru organoak antolatutako jardueretan izandako parte hartzea.
- Beste jarduera batzuetan izandako parte hartzea.
- Ikastetxeak/guraso elkarteak berak antolatutako jarduerak.
- Entrenatzaile kopurua (sexuaren arabera).

IKASTETXEETAN ETA IGEETAN KIROLA KUDEATZEKO GIDA

Arlo ekonomikoa:

- Kirol jarduerari dagozkion diru sarreren eta gastuen kontua.

- **Antolakuntzako alderdiak:** memoriak barne har dezake ikasturtean zehar izandako funtzionamenduaren deskribapen orokor bat.

Jarduerak deskribatzeko fitxak:

- Jardueraren izena.
- Talde argazkia.
- Partaideen izen-abizenak.
- Adina eta sexua.
- Jarduera egunak eta orduak.
- Kategoria, ibilbidea eta jarduera.
- Helburuen betetze maila.
- Etorkizunean izan dezakeen bilakaerari buruzko oharra.
- Taldearen arduradunaren balorazioa, zeuzkan aurreikuspenen gogobetetze mailari dagokionez.

Baliabideen eta antolamenduaren ebaluazioa:

- Kirol planen egokitasuna.
- Ezarritako ordutegi eta egutegiak.
- Taldeen konfigurazioa.
- Entrenatzaileen lan maila eta metodologiak.
- Material eta espazioen erabilera.
- Informazioaren arintasuna eta eguneroko funtzionamendua.

Memorian txerta daitezke, halaber, gurasoen ebaluazioak, edo baita kirolarienak ere. Gogobetetzea neurtzeko galdetegiak bidal ditzakegu, hobetu beharreko alderdiak antzematen saiatzeko.

- **Proposamenak**, hurrengo ikasturteetan aldaketak eta hobekuntzak egiteko.

Azken batean, memoria etorkizuneko jarduna **hobetze aldera** baliagarria izan dakigukeen **informazio** guztia modu argi eta ordenatuan biltzen saiatu behar dugu.

